

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

IBI eta zaborra tasen errolda jendaurrean jartzea eta zergen bilketarako aldia

Honakoak ordaindu behar dituztenen 2020ko erroldak egin dira:

- Hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren gaineko zerga.
- Landa ondasun higiezinaren gaineko zerga.
- Zaborra biltzeko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa.

Aipatutako erroldak jendaurrean jarriko dira, interesdunek egokiak iruditutako erreklama-zioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Horretarako, hamabost egun baliodun izango dituzte, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Halaber, interesdunek errolda horiek udaletxeko idazkaritzan izango dituzte eskuragarri, jendearentzako arreta-orduetan.

Era berean, jende orori jakinarazten zaio araututako epea ordaindu ahal izango direla.

I. Ordaintzeko epea:

a) Hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren gaineko zerga.

Borondatezko aldia zorra bi epetan ordainduko da. Bakoitzean, zerga-kuotaren ehuneko 50 ordaindu beharko da.

Lehenengo epea:

Borondatezko epealdia: abuztuaren 1etik irailaren 30ra.

Premiamendu aldia: urriaren 1etik aurrera Premiamenduko betearazte bide administratiboa abiaraziko da, dirubilketaren indarreko arautegi orokorrean ezarritako xedapenekin bat etorritik.

Bigarren epea:

Borondatezko epealdia: urriaren 1etik azaroaren 31ra.

Premiamendu aldia: abenduaren 1etik aurrera. Premiamenduko betearazte bide administratiboa abiaraziko da, dirubilketaren indarreko arautegi orokorrean ezarritako xedapenekin bat etorritik.

b) Landa ondasun higiezinaren gaineko zerga eta zaborra biltzeko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa.

Araututako epea: abuztuaren 1etik azaroaren 31era arte.

Premiamendu epea: abenduaren 1etik aurrera. Egundun horretatik aurrera administrazio premiamenduko betearazte bide administratiboa abiaraziko da, halaxe xedatzen baitu indarrean den dirubilketarako araudi orokorrak.

II. Ordaintzeko lekua eta modua:

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak: aurreko urteetan ere ordainketa banku bidez egin dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, baldin eta zerga helbideratuta zeukaten kontua oraindik ere indarrean badute. Horrelakoetan, udala arduratuko da ordainketa bideratzeaz.

B) Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa helbideratuta ez dutenek araututako epean ordaindu beharko dute udal bulegoan, astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara, kreditu txartelarekin. Era berean ordainketa udalak Kutxabanken eta Euskadiko Kutxan dituen edozein kontutan dirua sartuta egin daiteke.

III. Aholkuak:

Banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna etxebizitzaz aldatu bada, Zigoitiko Udalari jakinaraziko zaio, hurrengo batean jakinarazpenak egin ahal izateko.

Denek jakin dezaten ematen da aditzera.

Ondategin, 2020ko ekainaren 17an

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA